

*Lore-girlanda,*  
Abraham Mignon



Magdalena Kraemer-Noble

**BILBOKO ARTE  
EDERREN MUSEOA  
MUSEO DE BELLAS  
ARTES DE BILBAO**

Testu hau Creative Commons lizentziapean (mota: Aitortu–EzKomertziala-LanEratorririkGabe) argitaratu da (by-nc-nd) 4.0 international. Beraz, berau banatu, kopiatu eta erreproduzitu daiteke (edukian aldaketarik egin gabe), betiere, irakaskuntza edo ikerketarako helburuekin, eta egilea eta jatorria aitortuta. Ezin da merkataritza helburuetarako erabili. Lizentzia honen baldintzak <http://creativecommons.org/licenses/by-ncnd/4.0/legalcode> webgunean kontsultatu daitezke.



Ezin dira irudiak erabili eta erreproduzitu, argazkien eta/edo lanen egile-eskubideen jabeek berariazko baimena eman ezean.

© Testuenak: Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa-Fundación Museo de Bellas Artes de Bilbao

### **Argazki-kredituak**

© Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa-Fundación Museo de Bellas Artes de Bilbao: 1., 14. eta 15. ir.

By courtesy of Richard Green, London: 9. ir.

By courtesy of Magdalena Kraemer-Noble: 4., 10. eta 12. ir.

By courtesy of Johnny Van Haeften, London: 8. ir.

© Gemäldegalerie Alte Meister, Staatliche Kunstsammlungen Dresden / Elke Estel, Hans-Peter Klut: 5. eta 6. ir.

© Horta Auctioneers, Brussels: 11. ir.

© MBA Lyon / Alain Basset: 3. ir.

© Museo Nacional del Prado, Madrid: 7. ir.

© Royal Cabinet of Paintings Mauritshuis, The Hague: 2. eta 13. ir.

© Staatliche Kunsthalle Karlsruhe: 16. ir.

© Tim Koster, ICN, Rijswijk/Amsterdam: 17. ir.

Argitalpena:

*B'08* : *Buletina* = *Boletín* = *Bulletin*. Bilbao : Bilboko Arte Eder Museoa = Museo de Bellas Artes de Bilbao = Bilbao Fine Arts Museum, 4. zenb., 2009, 195.-237. or.

**B**ilboko Arte Eder Museoko bildumako *Lore-girlanda* [1. ir.] arranditsu hau aztertu baino lehen, Abraham Mignon artista barrokoaren bizitzan sakondu behar dugu. Natura hil honengatik ez bada, Espainian ezezaguna dela esan beharra dago. Mignonek maisu holandar eta flandestarren eraginpean egindako lanen gai bakarra natura hila da edo margolariak berak gai berari buruz garatutako aldaerak. Naturako mikrokosmosaren irudikapen zehatza sakon aztertuz gero eta irudikatutako objektu zein eszenen atzean dagoen zentzu ezkutu edo sinbolikoaren pertzepzioa antzemanaz gero, ikusleek hobeto ulertu ahal izango dute artista.

Abraham Mignon Frankfurten (Alemania) jaio zen 1640ko ekainaren 26an. Peter Mignon izeneko gazta-merkatari eta saltzailearen seme nagusia zen. Bere arbasoak ehun urte lehenago heldu ziren hirira, kobregile moduan, Herbehereetako hegoaldetik. Lehen etorkin-oldean iritsi ziren, gehienak frankofonoak ziren eta oparotasunaren bila zebiltzan. Era berean, errefuxiatu erlijiosoak ere baziren, eta euren fede kalbinista bizitzeko lekua aurkitu behar zuten. Nolanahi ere, hiriko biztanleek saltzaile holandar haien arrakastari aurka egin zioten, udalak 1594an eta, berriro ere, 1612an aldarrikatutako dekretuen bidez, euren fedea bizitzen debekatu zieten-eta. Hogeita hamar urteko gerrako garai asaldatueta gertatutako egitate horren ondorioz, gainbehera finantzarioa jazo zenez, Mignonen gurasoek semea atera zuten etxetik, Wetzlar-era (Alemania) joan baino lehen. 1650. urtearen inguruan, Abraham natura hilen margolaria, arte-merkataria eta tulipa-bildumagilea zen Jacob Marrelen tutoretzapean sartu zen. Dirutza heredatu ondoren, Herbehereetako iparraldetik iritsi zen bertara, eta Matthäus Merian Zaharra Suitzako grabatugile ospetsuaren alargunarekin ezkondu zen. Margolari-ikasketak egin zituen bitartean, Mignonek Merriandarren etxeko kultura partekatu zuen Marrelen alabaordearekin, hau da, bere garaiko margolari ausart eta ospetsuena zen Maria Sybilla Merianekin.



1. Abraham Mignon (1640-1679)  
*Lore-girlanda*, c. 1675  
Olioa mihisean. 102,7 x 84,5 cm  
Bilboko Arte Eder Museoa  
Inb. zenb. 69/223

Ondoren, beste erabaki garrantzitsu bat hartu zuen Marrelek, Anberesera eta Utrechtera egindako merkataritza-bidaietan Mignon eraman baitzuen berarekin. Utrecht, hain zuzen ere, 1649an San Lukas kofradia sortu zutenetik, margolari profesional batek babes eskusiboa zeukan, bere lanak hirian bertan merkaturatzeko. Mignon 1669an sartu zen kofradian, eta beretzat oso onuragarria izan zen Marrelek Jan D. de Heemekin harremanak edukitzea. Mignonek eta De Heemek adiskidetasun-harreman estua bezain emankorra izan zuten, harik eta Frantziak 1672an errepublika holandarra inbaditu ondoren De Heem Anberesera itzuli zen arte. Ez daukagu erreferentzia dokumentalik, baina ez da harritzekoa Mignonek De Heemen tailerraren ardura hartzea erabaki izana. Egia esan, Mignon behin betiko finkatu zen Utrecht. Bertan, Maria Willartsekin ezkondu zen. Waloia eta Adam Willartsen iloba zen, itsasaldeen margolari handien dinastia ospetsukoa, hain zuzen ere. 1675ean, Frantziako Eliza Eraldatukoa zen Janskerken ezkondu ziren. Oso balioespen ona zeukan natura hilen margolari moduan. Izan ere, talentu handikoa, langile profesionala eta merezitako ospeduna zen, eta, aldi berean, Eliza Kalbinistako diakonoa izaten jarraitu zuen. 1679ko martxoaren 26an, 39 urte zituela hil zen Abraham Mignon, eta emaztea eta bi alaba utzi zituen.

Mignonen lan ugariak aztertuz gero, egiaztatu egiten da Jan D. de Heemi kopiaziola eta natura hilen beste margolari batzuen estiloa bereganatu zuela: Willem van Aelst, Otto Marseus van Schrieck edo Jacob Gillig. Horrez gain, profesional independente eta asmo handikoa zen, eta kolore distiratsiak erabiltzen zituen margolanetan. Gainera, oso ondo menperatzen zituen argi-itzalen jokoa zein espazioaren ilusioa. Barrokoaren amaieratik hurbil, Mignon sasoi bete-betean zegoen, eta kolorearen zein konposizioaren dimentsio estetikoei erantsi zien bere sinesmen erlijiosoek elikatutako *vanitas* zentzua eta nolabaiteko esangura sinboliko ezkutua. Mignonen lanak bera bizirik zegoela kopiaziola zituzten, bai eta urte askoren ondoren ere, XIX. mendera arte. Mundu zabaleko museo eta bilduma partikularretan gordeta dauden lanen iaotasun plastikoa gaur egungo ikusleentzako gozamenarako ere bada.

1953. urtean, María Arechavaleta andreak José Palacio Bildumako *Lore-girlanda*<sup>1</sup> natura hil zoragarria Bilboko Arte Eder Museoari dohaintzan eman zionean, ondo baino hobeto omen zekien Bilboko erakundearen fondoak nabarmen aberastuko zituela. Izan ere, urte hartatik aurrera, hain ondo zainduta dagoen margolan hau<sup>2</sup> arte-historialari zein bisitarientzako gonbite iraunkorra da, lanaren zentzua eta edertasuna sakon arakatzeko<sup>3</sup>. Edonola ere, ezer gutxi gehiago dakigu XVII. mendeko pintura holandarreko adibide bikainari buruz. Guk dakigula, antzinako artxiboetan ez dago inolako erreferentziarik natura hilaren jatorriari buruz<sup>4</sup>. Era berean, ez dakigu nola iritsi zen Espainiara Herbehereetatik. Bestetik, oso zaila da erdialdeko obaloaren barruan irudikatutako emakume-irudiaren esangura zehatza zein den zehaztea.

Nolanahi ere, zentzuzko hausnarketak oso lagungarriak izan daitezke, Abraham Mignonen lore-girlanda hau sakonago ezagutzeko. Lore desberdinez osatutako sei sorta bi muturretatik lotuta daude harrizko *cartouche* grisera (obalo edo hobi apaingarri dekoratua da), lorearen goiko aldean, koroa inperialean, hain zuzen ere. Huntz eta sahasaren adarretara daude lotuta eta zinta urdinen bidez gurutzatuta. Konposizio monumentalaren apaindura simetrikoa da, eta erdi-erdian dagoen eszena figuratiboaren inguruan dago antolatuta.

---

1 Zoritzarrez, Abraham Mignoni buruz idatzi nuen monografia argitaratu zenean (Kraemer-Noble 2007), ez nekien natura hil hau Bilbon zegoenik. Sam Segal jaunari eskertzen diot informazioa.

2 Argi ultramorearen arabera, kalitate handiko margolana da, eta oso ondo zainduta dago. Dena dela, galera txikitxo dago lirio zuriaren parean, ezker aldean, atzealde ilunean. Gainera, ukitu arinak egin dira hemen: lirioa, erdialdeko irudiaren burua, ezker esku, zerbitzari beltzaren burua, lore-saskia eta mihisearen beheko alde. Marra bat dago gainazalean, eta 4 zentimetro eta erdiko altueraraino iristen da. Seguruena, aurreko markoa jartzean egin zioten marra hori.

3 Lasterra 1969, 223. zenb. (Daniel Seghersena omen da), ir.; Madril 1989, 72. or., ir.; Padua/Erroma 1991, 52.-53. or., ir.; Castañer 1992-1993, 188. or., ir.; Madril/Bilbo/Bartzelona 1992, 114. or., ir.; Castañer 1995, 244.-247. or., ir.; Ana Sánchez-Lassa in *Museo de Bellas Artes de Bilbao...* 1999, 114. or., ir.; Ana Sánchez-Lassa in *Maestros antiguos y modernos...* 2001, 53. or., ir.; Ana Sánchez-Lassa in *Museo de Bellas Artes de Bilbao...* 2006, 76. or., 53. zenb., ir.

4 Eskerrik asko Fred G. Meijerri, RKDKo artxiboak egiaztatzeagatik, Haga.

Girlandaren erdian, zetazko begizatxo urdina dago marko obalean gainjarrita. Hori dela eta, nolabaiteko dotoretasuna eta espazio-ilusioa ematen dizkio. Eskala txikiagoko bi lore-sorta daude ezker eta eskuinean, goiko aldeko erdialdean. Gainerako laurek, ordea, tamaina bikoitza dute, eta mihise osoa betetzen dute ertzetaraino. Antzeko ingerada duten bi sorta zitoriz, peoniaz eta tulipaz osatuta daude, eta beheko aldeko apaindurekin elkartzen dira. Hain zuzen ere, apainduretan lore ugari daude, denak ere lore erraldoiz osatutako markoaren barruan. Beheko aldean, mitxoleta batek eta peonia bateko kolore argi eta iluneko bi liriori egiten diete aurre, atzealde beltzarekin kontrastea eginez. Konposizio honetan, oso leku bitxian agertzen da Mignonen sinadura, koro inperialaren azpian, alegia, bere izena bi zurtoin belarkararen artean txertatu izan balu bezala. Beste sinadura batzuen aldean, agerikoa da margolariaren benetako sinadura dela, eta bere horretan dirau gainazaleko kolore-geruzaren gainean.

Hasiera batean, badirudi espezie botaniko eta intsektuaren unibertsoaren eraketa honek ikusizko nahasmendua sortzen duela, baina sentsazio hori desagertu egiten da trikimailu artistikoaren bidez, hau da, kolore-patroiaren bidez. Lore-unitate bakoitzak bi kolore nagusi ditu: gorria eta zuria. Horri esker, argi keinukariak izango balira bezala, konposizioak eztanda egiten du, su artifizialen antzera. Erdialdeko kolore zuriak arrosa, urdina edo bi kolore ditu inguruan, eta gorrirantz zein laranja eta horiaren aldaeratarantz hedatzen da.

Koloreen arteko interakzio hori garaiko gustuaren eta, batez ere, Mignonen teknikaren adierazgarri da. XVII. mendean, akademiak modu ofizialean onetsi zituen erretratu zein pasaiaren generoak eta gai erlijioso nahiz historikoenak. Nolanahi ere, ez zuen gauza bera egin natura hilen generoarekin. Beraz, natura hilen margolariak euren independentzia adierazi behar izan zuten nahitaez, eta euren jarraibideak zein irizpide estetikoak sortu behar izan zituzten, bai eta zenbait mezu etiko eman ere. Testuen hautaketa txiki bat dago, eta, bertan, artistek, artearen teorialariek eta arte-merkatariak –Karel van Mander (1604), Constantijn Huygens (1630), Cornelis de Bie (1662) eta Joachim Sandrart (1675), besteak beste– argibideak eta errezetak ematen dituzte, ondo orekatutako konposizio aparta sortzeko. Gerard de Lairesse artista holandarra (1704) natura hilaren azalpen globalaren saiakuntza egin zuen lehena izan zen<sup>5</sup>.

Hogeita hamar urteko gerraren ostean, hainbat eta hainbat gatazka erlijiosoren ondoren eta XVII. mendeko azken laurdeneko asaldura politiko eta sozial guztien ostean, arteek bizirik iraun zuten. Mignonek –Herbehereetako iparraldean zegoen Utrecht finkatu zena– eta beste artista batzuek euren lankideengandik heredatu zituzten natura hilaren teknikan erdietsitako era guztietako lorpenak eta aurrerakuntzak. Izan ere, gai eta eredu tradizionalak aukeratu zituzten, eta, aldi berean, euren artelanak merkaturatzen hasi ziren.

Horrela, Mignonen *Lore-girlanda* lanaren egitura aztertzean, agerikoa da obalo apaingarria edo hobi dekoratua darabiltzala. Greziako eta Erromako antzinaroko jatorrizko forma arkitektonikoa da, Errenazimentutik oso ezaguna zen eta bete-betean onartu eta ezarri zuten arte grafikoetan zein pinturan<sup>6</sup>. Obaloo forma askotakoa zen, dotorezia zein kategoria ematen zizkion margolanari eta lorez edo frutaz osatutako girlandaz inguratuta irudikatzen zen, artelan autonomoa eta, batez ere, apaingarria izango balitz bezala. Hala ere, horrelako pinturaren esanahiak lotura handia ere izan zezakeen erdian jorratutako gaiarekin, artistaren asmoa azpimarratzeko edo, enkargua egin zuen bezeroaren gurarien arabera, margolanari batzuetan ezkutua zen zentzu bakarra emateko erabiltzen zelako. Forma hibridoa, bi generoen nahastea, oso modan jarri zen Anberesen eta Utrechtan, eta, seguruenik, Jan D. de Heemek sartu zuen.

Aztergai dugun kasuan, gai erlijiosoa edo alegorikoa den motibo zentralaren inguruan ezagutzen diren lore-girlanden bertsio zaharrenak flandestarrak dira. Iparraldeko herrialdeetan hamarkada luzez iraun zuen tradizioaren iturriak direla esan daiteke. 1608. urtetik XVII. mendeko erdialdera arte, Jan Brueghel Zaharrak

5 Amsterdam/Cleveland 1999, 11. or.

6 Kraemer-Noble 2008, 239. or.





2. Daniel Seghers (1590-1661); Willeboirts Bosschaert (1614-1654)  
*Andre Mariaren irudiaren inguruko lore-girlanda*, 1645  
 Olioa mihisean. 151 x 122,7 cm  
 Koninklij Kabinet van Schilderijen Mauritshuis, Haga  
 Inb. zenb. 256

edo Rubensek eta euren tailerrek lore zein irudi nagusien irudikapenetan lankidetzak handiak egin zituztenez, era guztietako girlanda ugari sortu zituzten<sup>7</sup>. Daniel Seghersek –jesuita honek Utrechtan eman zion hasiera bere ibilbide artistikoari, eta, ondoren, Italian zehar bidaiatu zuen, Anberesen behin betiko finkatu baino lehen<sup>8</sup>– eta beste margolari batzuek estilo hori sartu zuten, eta, bertan, lorez betetako konposizioen irudikapen xehea zen nagusi. Seghersek gai erlijiosoko koadroak baino ez zituen margotu, eta, bertan, Pasioko nahiz Biblia Santuko eszenen edo santuen irudiak agertzen dira.

Azkenean, badirudi Utrechtoko Jan D. de Heem artistak, garai hartako natura hilen margolari trebe eta artista unibertsalenak, zenbait urte eman zituela Anberesen 1636tik 1663ra, frutak, landareak, loreak eta *vanitas*<sup>9</sup> gaitzat hartzen. Seguruenik, Seghersen eta Bruegheldarren eraginpean, De Heemek zeresan handia izan zuen testuinguru horretan. Izan ere, artistak behin eta berriro zeharkatu zituen bi estilo zein pentsaeraren arteko mugak –flandestarra eta holandarra–. De Heemek, gainera, bere jakintza artistiko eta kulturalak irakatsi ahal izan zizkion Abraham Mignoni, azken horrek haren agindupean lan egin zuenean Utrechtan. Baina, beharbada,

7 Hairs 1985, 102. or.

8 Daniel Seghers, *Lore-girlanda, Andre Maria, Umea eta San Joan Bataiatzailea*, bilduma partikularra, Belgika (Ibid., 192. or., 62. ir.).

9 Willigen/Meijer 2003, 104. or.



3. Jan Davidsz. de Heem (1606-1683/1684)  
*Guillermo de Orangeren erretratu, lore-girlanda batean*, 1665  
 Olioa mihisean. 132 x 108 cm  
 Musée des Beaux-Arts de Lyon, Frantzia  
 Inb. zenb. A85

Mignonek bere lehenengo maisuari esker (Jacob Marreli esker, alegia) ezagutu zuen *cartouchea*. De Heemek Marrelekin lan egin zuen Frankfurtera joan baino lehen.

Hiru artista horien natura hilen sekuentzia aztertuz gero, agerikoa da nola bereizten zituzten modu optikoan *cartouchearen* elementu arkitektonikoa eta atzealdeko espazioa. Daniel Seghersek *Andre Mariaren irudiaren inguruko lore-girlanda* [2. ir.]<sup>10</sup> margolanean zizelkatutako hobia sentsazio errealistaren eta harri gris zakarren zein horman era antzemanazinean jarritako girlanden freskotasunaren arteko kontrastearen adierazgarri da. Bi materialak zehaztasun eta leialtasun morfologiko berberaz eginda daude. Petalodun lore-sorta ertainei darien adar finek ukitu arina ematen diote hain trinkoa den konposizioari. Hala ere, artistak ez du hainbesteko dramatikotasunaz erakusten argi-itzalen kontrastea. Margolan hau, hain zuzen ere, 1645ean Orangeko printzeari eskainitako erretratu da.

Jan D. de Heemek gai erlijiosoekin egindako *cartoucheen* konposizio bakarren artean, *Guillermo de Orangeren erretratu, lore-girlanda batean* [3. ir.] mihisea aukeratu dugu. Ñabardura erlijiosorik gabeko margolan hau

10 B. Broos, Haga 1992, 98. or., 24. zenb., ir.





4. Abraham Mignon (1640-1679)  
*Lore-girlanda, Andre Maria eta Umea*  
Olioa mihisean  
87 x 78 cm  
Bilduma partikularra

1665ekoa da, eta Lyongo Musée des Beaux-Artsen dago gaur egun<sup>11</sup>. De Heemen pertzepzio errealistari esker, aukeratutako gaiaren arabeko zentzu alegoriko eta espirituala eman ahal zaio mendetako eszenari. Kontrarreforman, *cartouchea* esparru paregabea zen, Orange Etxeak agindutako irudikapen ofizialak egiteko. Kasu honetan, ia osorik ezkututzen du printzearen bustoaren konposizio handi-handiak, eta kornukopiadun bi arrano ditu alboetan. Laranja ez ezik, oparotasunaren adarrei intsektu ugaz inguratutako hainbat mahats, murtxika, gaztaina, gerezi eta meloia ere badarizkie. Goiko aldean jarritako bioleta eta ekilorearekin batera, fruta-girlanda zoragarria osatzen dute. Erretratupean, etzanda dagoen lehoiak laranja dauka atzaparren artean, eta lore deigarrien sorta agertzen da animaliaren bizkarrean. De Heemen talentua nabaria da elementuak irudikatzeko zehaztasunean, bai eta boterea, loria eta betikotasunaren sinboloen bitartez esangura ezutuak iradokitzeko moduan ere. Era berean, loreen aukeraketa ere nabarmendu beharra dago: arrosak, zitoriak eta krabelinak, hau da, tradizioaren arabera Berpizkundearekin edo Andre Mariarekin lotuta egon diren loreak. Kasu honetan, printzearen aipamen profanoak izan daitezke, Hagako gobernadore-kargu berriaz jabetzeko egintzan.

11 Tapié 1997, 72. or. ir., 67. or.



5. Abraham Mignon (1640-1679)  
*Lore eta fruten girlanda*, c. 1670  
 Olio mihisean. 91 x 74 cm  
 Gemäldegalerie Alte Meister, Staatliche Kunstsammlungen Dresden, Alemania  
 Inb. zenb. Gal. 2020

Edonola ere, Abraham Mignonek beste aurrerapauso bat eman zuen bere lore-margolanetan, dekoratibismo hutsaren eta naturaren edertasun apartak sortutako plazer gogatsua bidean, edertasun pletorikoak gaitibu duelako ikuslearen begia. *Cartouchearen* formari esker, hainbat eta hainbat lore «eszenaratu» ditzake, baina, egia esan, esparru hori atzealde ilunaren erdi-erdian desagertzen da. Mignonek ez du dimentsio espazialik behar. Den-dena lehen planoan eta argi-argitan gertatu edo dramatizatu egiten da. Hain zuzen ere, badirudi horixe bera dela bere asmoa. Estilo horren bidez egindako lore-girlanda gutxi daude, eta jakin badakigu berak egin zituela. Benetan, lore edota landare jakin batzuk agertzen dira beti. Lehen Vienako Schönborn-Liechtenstein Bilduman zegoen<sup>12</sup> *Lore-girlanda, Andre Maria eta Umea* lanean [4. ir.], bihotz-antzeko forma duen girlanda errepikatzen da eszena erlijiosoaren inguruan. Erdiko medailoia ez zuen Mignonek egin, eta oraindik ez dakigu nork egin zuen. Gaur egun Dresdenen dagoen hirugarren aldaeran, De Heemek loreak eta frutak nahasteko daukan artea agertzen da [5. ir.]<sup>13</sup>. Dresdenekoa ere baden *Loreak eta frutak zinta urdinen gainean* [6. ir.] natura hilean, ordea, barazkiak eta frutak agertzen dira, tokian tokikoak

12 Kraemer-Noble 2007, 66. or., 11. zenb. ir., 67. or.

13 Ibid., 68. or., 12. zenb. ir., 69. or.



6. Abraham Mignon (1640-1679)  
*Loreak eta frutak zinta urdinen gainean, c. 1670*  
 Olioa mihisean. 101 x 83,5 cm  
 Gemäldegalerie Alte Meister, Staatliche Kunstsammlungen Dresden, Alemania  
 Inb. zenb. Gal. 2018

zein exotikoak, eta guztiak talde trinkoetan daude jarrita<sup>14</sup>. Bi mihiseetako erdialdean, ez dago inolako irudikapenik. Belar, gari-zurtoin edo adarren nahasteak nolabaiteko graziaz estaltzen du hutsunea.

Loreak eguneroko bizimoduko elementu nabaria ziren. Erreboila exotiko garestiak iparraldeko herrialdeetara heldu zirenean, «tulipomania» piztu zen. Gertakari horri buruzko lehenengo erreferentzia dokumentalak XV. mendeko azken laurdeneako dira. Artistek ere fenomeno hori bultzatu zuten, lore eta sortak pintatuz, lorategi botanikoetako landareak aztertuz, eta lore horiekin merkataritzan arituz<sup>15</sup>.

Berriro ere, Mignonek flora eta fauna nola antzematen dituen hobeto ulertu ahal izateko, Jan Brueghel Zaharraren lanei erreparatu behar diegu. Bost zentzumenen serieko margolanetako bat, *Usaimena* Pradoko Museoan dago [7. ir.]<sup>16</sup>. Edengo Lorategiaren denborarik gabeko eszena azaltzen da bertan eta 1616 eta 1618. urteen artean egindakoa da. Emakume biluzia, usaimenaren alegoria, *putto*arekin eserita dago lurrean,

<sup>14</sup> Ibid., 70. or., 13. zenb. ir., 71 or.

<sup>15</sup> Brom 1957; Castañer 1992-1993, 188. or.

<sup>16</sup> Schneider 1989, 65. or. ir., 68. or.





7. Peter Paul Rubens (1577-1640); Jan Brueghel Zaharra (1568-1625)  
*Usaimena*, 1616-1618  
 Olioa oholean. 65 x 109 cm  
 Museo Nacional del Prado, Madril  
 Inb. zenb. P01396

belusezko estalkiaren gainean. Oinaldean, honako hauexek ditu inguruan: loretan dauden zuhaixkak, landareak, lorez betetako loreontziak, pitxer handiak eta arrosak darizkien saskiak. Harrigarria da zelan hazten diren batera hain lore desberdinak, hain modu naturalean. Europako pinturan, arrosak, negu-txilintxak, koroa inperiala, peoniak, lirioak, tulipak, anemonak, bioletak eta beste lore batzuk agertzen dira helburu erlijioso zein sinbolikoekin. Geure testuinguruan, eskuinaldeko lirio gorri eta zuriei erreparatu behar diegu, batez ere.

Hamar urte geroago, 1626. urtearen inguruan, artistaren semeak, Jan Brueghel Gazteak, aitaren tailerra zuzentzen zuen Anberesen, eta laguntzaileak kontratatzen zituen, Brueghel Zaharraren erara egindako lore-margolanen eskariari erantzuteko<sup>17</sup>. *Loreontzia loreekin* margolanean [8. ir.], lore txikiagoak agertzen dira zeramika esmaltatuz egindako pitxer handiko ahoaren inguruan. Goiko aldean, peoniaren ondoan dauden koroa inperiala eta sorta obalatutik sortutako lirioak nabarmentzen dira. Lau lirio-mota bereizten dira.

Hermitageko bildumakoa den *Andre Maria eta Umea lorez egindako girlanda batean* lana apur bat haratago doa. Erdiko irudia egin zuen Jacob Jordaensen eta loreak margotu zituen Andries Danielsen jarraitzaile baten arteko lankidetzaren emaitza da. Fred G. Meijerrek Bilboko Arte Eder Museoaren Buletina 4an argitaratutako Andries Danielsi eta Frans Francken II.ari buruz egindako azterketan («Anberes, XVII. mendea: Andries Danielsen eta Frans Francken II.aren *Loreontzia tulipekim*») adierazten duenez, loreak beste artista batek egin zituen, eta, seguruenik, Brueghel dinastikoa zen. Hala ere, Andre Mariaren eta Umearen loriarako pintura kristologikoko ereduen arabera errealitatearen eta ilusioaren artean garatutako jokoaren adibide bikaina da margolan hori. 1576an Charles de l'Ecluse botaniko frantsesak Turkiatik Vienara inportatutako koroa inperialak (Carolus Clusius) gailurrean jarraitzen du modu nabarian, peoniak azpian daude; eta zitoriak, bi alboetan<sup>18</sup>. Kolore alaiari joko fin bezain harmoniatsua, ordea, osteko artisten belaunaldiak garatu zuten.

<sup>17</sup> *Dutch and Flemish...* 2005, 8. zenb., ir.

<sup>18</sup> N. Gritsayren ustez, mihisea bi artisten arteko lankidetzaren emaitza da (Viena/Essen 2002, 330. or., 114. zenb. ir., 331. or.). Fred G. Meijerrek argitalpen honetan Andries Danielsi eta Frans Francken II.ari buruz egindako artikuluan, Danielsenaren antzeko beste esku batek egin zituen loreak.



8. Jan Brueghel Gaztea (1601-1678)  
*Loreontzia loreekin*  
Olioa oholean. 126 x 97 cm  
Bilduma partikularra

Espiritu horren barruan, Abraham Mignonek intsektuak eta beste animalia batzuk zeramatzaten lore-irudikapenak garatu eta sustatu zituen bere lan-ibilbidean zehar. Bilboko Arte Eder Museoko *Lore-girlanda* laneko landare zein intsektuen zerrenda Mignonek sakon aztertutako espezie ugarietara eta zehaztasunez irudikatzeko zeukan gaitasunera egindako hurbilketa zientifikoa dela esan daiteke. Besteak beste, artista horrexegatik da hain berezia garai honetako edo beste garai batzuetako ikusleentzat eta naturaren zientzie-tako zaletuentzat<sup>19</sup>.

Bilboko margolanean, agerikoa da oso garrantzitsua dela koroa inperiala modu tradizionalaren arabera goiko aldean jartzea. Dresdeneko pinturako girlandetan, alborantz daude, mihisearen beheko aldean. Petalo handiko loreak, peonia eta mitxoleta, esaterako, beheko aldeetan jartzen dira sarritan, eta lirio zein tulipentzat uzten dira goiko aldeak.

Lehenago aipatutako *cartouche* mota honen kategoria bereko adibideak alde batera utzita, isolatutako zenbait objektu eta Mignonek egindako natura hiletan behin eta berriro agertzen diren sekuentzia-konbinazioak oso

<sup>19</sup> Eskerrik asko Amsterdameko Sam Segal doktoreari, landare eta intsektuen zerrenda berrikusteagatik.





## Landareen zerrenda

- 1 *Saxifraga umbrosa* (Basoko saxifraga)
- 2 *Lychnis chalconica* (Maltako gurutzeta)
- 3 *Hedera helix* (Huntza)
- 4 *Polemonium caeruleum* (Polemonioa)
- 5 *Calendula officinalis* (Ilen kultibatua)
- 6 *Poa pratensis* (Espikula)
- 7 *Papaver somniferum albo-rubrum fimbriatum* (Opio mitxoleta)
- 8 *Iris germanica* (Ostargi-belar urdina)
- 9 *Rosa foetida* (Arrosa kirastua)
- 10 *Chamaemelum nobile* (Kamamila erromatarra)
- 11 *Rosa x alba subplena* (Estrepa zuria)
- 12 *Paeonia officinalis plena* (Peonia)
- 13 *Convolvulus tricolor* (Egun-lorea)
- 14 *Rosa x provincialis* (Gaztelako arrosa)
- 15 *Anemone coronaria pseudoplena* (Anemona koronarioa)
- 16 *Tulipa clusiana x Tulipa Stellata* (Tulipa clusiana x Tulipa stellata)
- 17 *Viola tricolor* (Pentsamendu basatia)
- 18 *Lilium candidum* (Zitoria)
- 19 *Paeonia peregrina* (Peonia pelegrina)
- 20 *Lilium bulbiferum semipseudoplenum* (Zitori gorria)
- 21 *Triticum aestivum* (Garia)
- 22 *Tulipa armena x Tulipa agenensis* (Tulipa hibrido)
- 23 *Hibiscus syriacus roseus* (Hibiskoa, Siriako arrosa)
- 24 *Digitalis purpurea* (Kuku-praka)
- 25 *Viburnum opulus cv. Roseum* (Alezeria)
- 26 *Amaranthus caudatus* (Sabia, Azeri-buztana)
- 27 *Aethusa cynapium* (Astaperrexil txikia)
- 28 *Agrostis stolonifera* (Agrostisa)
- 29 *Fritillaria imperialis* (Koroa inperiala)
- 30 *Polygonum persicaria* (Astapierra)
- 31 *Rosa canina* (Basoko arrosa)
- 32 *Rosa foetida vs. bicolor* (Bi koloreko arrosa kirastua)
- 33 *Scabiosa atropurpurea alba grandiflora* (Lubeazuna)
- 34 *Digitalis purpurea alba* (Kuku-praka zuria)
- 35 *Anemone coronaria pseudoplena atrociculata* (Anemona koronarioa)
- 36 *Rosa rubiginosa* (Arkakaratsa)
- 37 *Narcissus pseudonarcissus* (Zitori gorria)
- 38 *Tulipa armena* (Tulipa konikoa)
- 39 *Tulipa agenensis x Tulipa armena* (Tulipa agenensis x Tulipa armena)
- 40 *Rosa hemispherica* (Sufre arrosa)
- 41 *Gentiana accaulis* (Errosta)
- 42 *Rosa damascena vs. Versicolor* (Damaskoko arrosa)
- 43 *Iris germanica x Iris albicans* (Lirio hibrido)



## Intsektuen zerrenda

- A *Parvavespula vulgaris* (Liztor arrunta)
- B *Abraxas grossulariata* (Arlekina)
- C *Lasius flavus* (4) (Inurri horia)
- D *Heteroptera* (Zimitza)
- E *Scolioptery libatrix* (Tximeleta)
- F *Trichius zonatus* (Kakalardo erlastarra)
- G *Formica rufa* (1) (Inurri gorria)
- H *Trichodes apiarius* (Xakeztatutako kakalardo erle-jalea)
- I *Malocosoma neustria* (Beldarra)
- J *Aranius diadematus* (Gurutx armiarra)
- K *Vespa crabro* L. (Kuruminoa)
- L *Tipula oleracea* (Aza-eltxo)
- M *Cepaea hortensis* (Baratze-barraskiloa)



9. Abraham Mignon (1640-1679)  
*Loreak kristalezko loreontzi batean*, 1670. urtearen ondoren  
 Olioa oholean. 48 x 35 cm  
 Bilduma partikularra, Erresuma Batua

lagungarriak izan daitezke *Lore-girlanda* hau erkapen bidez egiaztatzeko orduan: puntu urdin ilunaz irudikatutako errosta arrosa zuriaren kontrastea da (*Loreak metalezko loreontzi batean*, Mauritshuis, Haga); hiru arrosak osatutako seriea: zuri-gorria, zuria eta arrosa-kolorekoa [9. ir.]; irekitzen ari den mitxoleta zuri-gorriaren petaloa (*Loreak loreontzian*, Galleria Sabauda, Torino); lirio fin bezain urdina (*Lore-girlanda*, Statens Museum for Kunst, Kopenhage); goiko aldeko begizta bikoitza (*Lore zintzilikatuak*, bilduma partikularra, Europa); landako loreak eta tximeletak [10. ir.]; gari-zurtoinen eta tuliparen gaineko intsektuak [11. ir.]<sup>20</sup>.

Natura hilen konposizioen teknikari dagokionez, Mignonek ez du inolako berrikuntzarik eskaintzen margolan honetan. Lehen adierazi bezala, artistak lanak sortzeko irrikaz zeudenez, edonork erabiltzeko moduko ereduak ezarri zituzten. Argi eta garbi esan daiteke naturaleko zirriborro eta diseinuen liburuak zeuzkatela, bai eta zenbait perspektibatatik egindako lore-irudikapenak eta lore-sorta leku egokian txertatzeko laginak ere. Mignonek, ordea, ez du horrelako agiririk utzi.

Hori horrela izanik ere, natura hilaren bi alboak apaintzeko elkarrekin jarritako zitore zuriak eta gorriak benetako salbuespena dira. Konbinazio hori ez dugu berriro ikusi Mignonen eredu batean ere, lore horiek pitxer handietan banan-banan baino ez baititugu aurkituko edo leize-antzeko paisaietako lore-moduan [12. ir.]<sup>21</sup>. Carlo Dolciren *Zitoridun Andre Maria* (Musée Fabre, Montpellier) mihise obalean, zitore zuri-gorria eta arrosa-koloreko arrosa agertzen dira, eta esangura sinbolikoa omen dute. Alain Tapiéren interpretazioaren arabera, margolan hau antzinako kopia baten barroko italiarraren berezko bertsioa da, eta Andre

<sup>20</sup> Kraemer-Noble 2007, 65., 75., 67., 10., 9., 5. eta 74. zenb.

<sup>21</sup> Ibid., 246. or., 98. zenb. ir., 247. or.





10. Abraham Mignon (1640-1679)  
*Lore zintzilikatuak eta fruta, c. 1667*  
 Olioa haritz-oholean. 40 x 31 cm  
 Bilduma partikularra, Alemania



11. Abraham Mignon (1640-1679)  
*Natura hila udako loreekin horma-hobi batean, 1670. urtearen ondoren*  
 Olioa mihisean. 88 x 68,5 cm  
 Horta Auctioneers 1996, Brusela

Mariaren araztasuna irudikatzeko erabiltzen zen<sup>22</sup>. Jan D. de Heemen bi lanetan baino ez dira jartzen bi zitori sorta bakar batean: Lyongo *Guillermo de Orangeren erretratu* lanaren osagaia den lore-girlanda eta Hagako Mauritshuiseko *Loreontzia loreekin* [13. ir.]. Azken mihise hori 1675. urtearen ingurukoa denez<sup>23</sup>, orientazio

22 Tapié 1997, 73. or. ir., 71. or.

23 Fred G. Meijerrek 1675. urtearen inguruko data hori iradoki zuen.



12. Abraham Mignon (1640-1679)  
*Natura hila loreekin basoan*, 1675. urtearen ondoren  
Olioa mihisean. 101 x 83,5 cm  
Une honetan daukan kokapena ezezaguna da

moduan erabili daiteke Mignonen lana noizkoa den zehazteko, 1679an hil zenean, bere ibilbide artistikoko une gorenean baitzegoen.

Mignonek Bilboko Arte Eder Museoko natura hila egin zuela egiaztatzen duten beste argudio batzuk sortzen dira Amsterdamen (1999-2000) eta Bilboko Arte Eder Museoan egindako azterketa zientifikoak erkatzean. Amsterdameko Rijksmuseumek Cleveland Museum of Arten laguntzaz antolatu zuen mundu zabaleko museoetako bildumetako natura hil holandarraren generoko maisulan nabarmenak ikusgai jartzen zituen erakusketa handia. Horrez gain, bi instituzioen partaidetza izan zuen Molart proiektuaren bidez, estiloa, metodoak eta iturri tekniko zein historikoak aztertu zituzten<sup>24</sup>. Mignonen bi mihise daude Rijksmuseumeko bilduman, eta mikroskopiaren zein proba mikrokimikoen bitartez aztertzeke aukeratu zituzten. Amsterdameko bi margolanetako batean, *Natura hila lore eta erlojuarekin* lanean<sup>25</sup>, eta Bilboko Arte Eder Museoko *Lore-girlanda*

24 Wallert 1999, 4. or.

25 Abraham Mignon, *Natura hila lore eta erlojuarekin*, Rijksmuseum, Amsterdam, inb. zenb. SK-A-268 (Ibid., 82. or.).





13. Jan Davidsz. de Heem (1606-1683/1684)  
*Loreontzia loreekin*, c. 1675  
 Olioa mihisean. 74,2 x 52,6 cm  
 Koninklij Kabinet van Schilderijen Mauritshuis, Haga  
 Inb. zenb. 1099

margolanean [14. ir.]<sup>26</sup> irudikatutako eta aztertutako lore baten (*rosa foetida*) pigmentuen azterketako emaitzak harrigarriak izan dira benetan. Izan ere, agerian uzten du lotura estua dagoela margolanen artean, eta, horrez gain, Abraham Mignonen teknikari zein kalitate handiko materialen erabilerari buruzko oinarritzko datuak eskaintzen ditu.

Bilbon dagoen Mignonen margolanaren euskarria lihozko tafetan-mihisea da, eta, zorionez, berriro berrehundu gabe iritsi da gaur egunera arte. Hartutako pintura-laginen azterketaren arabera, artistak kolorea prestatzeko geruza arrea erabili zuen, eta honako hauexek zituen osagai: lurrak, kaltzio karbonatoa eta minio apur bat. Gainean, honako osagaiok zituen beste inprimazio-geruza gris bat jarri zuen: albaialdea, burdin oxidoko beltza, lurrak, egur-ikatz eta kaltzio karbonatoa. Oinarritzko kolore-geruza gris horren gainean, loreetarako erabilitako koloreak jarri zituen. SEM-EDX bidez aztertutako horiaren arabera, sufreakin (S) zerikusirik

26 Arte-Lab, S.L., Madril, 2008ko azaroa eta 2009ko urtarrila. Azterketa eta ikerketa kimikorako teknika hauek erabili dira: igorritako argi intzidentea duen mikroskopia optikoaren bidezko mikrolaginaren azterketa, tindaketa selektiboak eta saiakuntza mikrokimikoak, fluoreszentiaren mikroskopia optikoa, Fourier transformadorearen bidezko espektroskopia infragorria (FTIR), gasen kromatografia –masen espektrometria (GC-MS), ekorketaren mikroskopia elektronikoa– eta X izpien energiak barreiatzeko espektrometriaren bidezko mikroazterketa (SEM – EDX). Geruzen lodiera neurtzeko, 10x /0,25 objektiboa duen lente mikrometrikoa erabili da estratuaren gune zabalenean. Oihalen zuntzak ezaugarri mikroskopikoen bidez identifikatu dira luzetarako zein zeharkako sekzioetan. Bestetik, zuntzen kanal nagusia aztertu da, erreaktibo kuproamoniakala daukan erreakzioaren bitartez.



14. Abraham Mignon (1640-1679)

*Lore-girlanda*, c. 1675

Bilboko Arte Eder Museoa

Lore baten kolore horiaren estratigrafia (*rosa foetida*)

1. Lurrez, kaltzio karbonatuz eta minioz osatutako prestaketa (m. b. p.)
2. Albaialdez, burdin oxidoetako beltzez (b. p.), lurrez (b. p.), egur-ikatzez (b. p.) eta kaltzio karbonatuz (m. b. p.) osatutako inprimaketa
3. Albaialdez, lur horiz eta kaltzio karbonatuz osatutako pintura horiko geruza (b. p.)
4. Kolore arreko geruza
5. Kaltzio karbonatuz, lur horiz, barioaren zuriz, kadmioaren horiz (b. p.), albaialdez (b. p.), titanioaren zuriz (b. p.) eta zinkaren zuriz (b. p.) osatutako pintura horiko geruza
6. Kolore arreko geruza

ez duen artsenikoa dauka, pigmentu hori oropimentaren edo errejalgarraren identifikazioan gertatzen den bezala. Hori dela eta, kimikariak ikertzen hasi dira, eta, euren hipotesiaren arabera, pigmentu koloratu edo karga-material moduan pintura-geruzari erantsitako beste artseniko-konposatu bat egon liteke. Agerikoa denez, Mignon esperientziadun artista zen, eta oso efektu ona lortu zuen, Bilboko natura hilean erabilitako koloreen bizitasunaren bitartez. Horrela, lengoia piktoriko zehatza eta ia metalezkoa lortu zuen.

Esandakoaren argitan, ziurtasun osoz esan dezakegu margolana Abraham Mignonena dela. Obaloaren barruko eszena, ordea, anbibalentea da. Hona iritsita, artistaren inguruabar pertsonalak ere hartu behar dira kontuan. Bere sinesmen kalbinistak oso sendoak zirenez, Mignon etorkina eta errefuxiatua izan zen. Utrechtera iristean, berriro hasi behar izan zen, eta, horretarako, bere iaioitasuna, gogoa eta arrakasta lortzeko erabakigarritasuna baino ez zituen bidaide izan. Diakono moduan garatutako ministerio erlijiosoari esker, komunikatu eta harremanak ezarri ahal izan zituen, eta oso lagungarriak izan ziren hiriko bizitza profesional zein sozialean. 1669an, San Lukas kofradian onartu zuten, eta, era berean, oso erabaki adimentsua izan zen urregile zein paisajisten familia bateko emakumearekin ezkontzea<sup>27</sup>.

Bere sinesmen kalbinistak oso sendoak zirenez, Mignonek uko egiten zion irudi figuratiboak erabiltzeari. Horregatik, beharbada, zoko arkitektonikoez, paisaiek edo leizeek inguratutako natura irudikatzea erabaki zuen, bizi-ziklo distiratsua bezain transzendentea izango balitz bezala, Jainkoaren sorkuntza laudatzeko asmoz. Nolanahi ere, bere margolanetan oso gutxitan agertzen dira giza irudiak edo euren lorpenen aztarna.

<sup>27</sup> Kraemer-Noble 2007, 10. or.

© Babestutako materiala



15. Abraham Mignon (1640-1679)  
*Lore-girlanda*, c. 1675  
Bilboko Arte Eder Museoa  
Xehetasuna

Mignonek egindako loreen natura hila aipatu dugu lehen, Vienako Schönborn-Liechtenstein kondearen antzinako bildumako *Lore-girlanda*, *Andre Maria eta Umea* [4. ir.]<sup>28</sup>. Bertan, hain zuzen ere, atzeko aldetik profilez ikusitako Andre Maria eta Umea agertzen dira. Zorritzarrez, originala aztertzerik izan ez dugun arren, irudia beste artista batena izango da seguruenik.

Bilboko margolanean, argitu gabeko sekretu eta gai asko daude oraindik. Kalitate artistikoa hain ona ez den arren, badirudi Mignonek berak egin duela irudia [15. ir.]. Neska gazte bat atzealde ilunetik irten eta ikusleengana hurbiltzen da. Antzinako erara jantzita dago eta honako haxe darama soinean: urre-koloreko soineko okrea, alkandora zuria, harribitxiz apaindutako gerriko gurutzatua daraman tunika eta, atzean, mantu urdin uhinkaria. Begizta gorriak daramatza ilean. Bertatik, perla handia irteten da, eta bekokiaren erdian dago zintzilik. Era berean, perladun diadema eta belarritakoak ere badaramatza. Horrek guztiorrek mitologia, alegoria edo, beharbada, noblezia dakarkigu gogora. Neska gaztearen aurpegiera estatikoa da. Arrosaz eta beste lore batzuek betetako saskia du esku artean, eta, bertarantz begira dago. Zerbitzari beltza du eskuinaldean, eta gortesauen erara dago jantzita: mahuka irekidun goiko jantzia eta lepoaren zein buruaren inguruan jarritako xala. Ez dago jakiterik ezker besoa jasotzean neska gazteak egindako keinua babeserako den, bakardade-guraria den ala mugimendu xehea den. Eskuin eskua eta besoa saski gainean esekita daude. Bere eskutik narras doan sugetxoak hozkatu berri egin du, eta bi odol-tanta txiki dira horren adierazgarri. Sugea lorez betetako saskitik irten da ihesi, eta badirudi eszena nagusiaren eta lore-girlandaren arteko lotunea ezartzen duela, azken finean konposizioko motibo nagusia da-eta.

28 Ibid., 11. zenb.





16. Caspar Netscher (1639-1684)  
*Kleopatraren heriotza*, 1673  
 Olioa mihisean. 53,5 x 44 cm  
 Staatliche Kunsthalle Karlsruhe, Alemania  
 Inb. zenb. 264

Xesqui Castañer Lópezek 1995ean<sup>29</sup> egindako interpretazioaren arabera, emakumea Zuhurtziaren alegoria da; eta sugea, jakituriaren sinboloa. Hala ere, ez da batere sinesgarria. Bilboko Arte Eder Museoko bildumaren azterketan adituak diren Crisanto de Lasterra, Juan J. Luna eta Ana Sánchez-Lassaren ustez, emakume hori Kleopatra da, eta saskia zein suge pozoitsua dira haren adierazgarri<sup>30</sup>. Izan ere, Kleopatra Ptolemaika, Egiptoko erregina, oso ospetsua zen bere edertasun, adimen eta ugaritasunagatik, baina bere kondaira eta historiagatik ere bai<sup>31</sup>. Plutarkok honelaxe azaldu zuen Kleopatraren heriotza: «Hilda ikusi zuten, urrezko ohean etzanda, bitxi guztiak soinean zituela. Bere oinaldean, liras dago hilda, bere neskameetako bat, eta Charmion erortzekotan dago, buruari eutsi ezinik dabil bere ugazabandreaken diadema ondo jartzen».

29 Castañer 1992-1993, 188. or. eta Castañer 1995.

30 Ikus Madril 1989, 20. zenb. eta Ana Sánchez-Lassa in *Museo de Bellas Artes de Bilbao...* 1999, 114. or. eta *Museo de Bellas Artes de Bilbao...* 2006, 76. or., 53. zenb.

31 Kleopatra (K.a.-ko 69-30) Egiptoko azken erregina izan zen, herrialdea Erromatarren Inperioko probintzia bihurtu baino lehen. Alexandrian jaio zen eta K.a.-ko 46 eta 44. urteen artean, Erroman finkatu zen Zesarrekin batera, eta semea eduki zuen. Julio Zesar erail ostean, Egiptora itzuli zen. K.a.-ko 41. urtean, itun politikoa ezarri zuen haren ondorengoa zen Marko Antoniorekin. Izan ere, oso erromantze ospetsua eduki zuen harekin, eta bi seme gehiago eduki zituen, K.a.-ko 36. urtean ezkondu baino lehen. K.a.-ko 31. urtean Aktioko batailan jasandako porrotaren ondoren, Marko Antoniok bere buruaz beste egin zuen. Horren ondorioz, hogeitik gora urtean Egipto gobernatu zuen Kleopatrak ere bere burua hil zuen 39 urte zituela. Besteak beste, Dion Kasiok (LI, 13, 4) eta Plutarkok (*Marko Antonioren bizitza*, 44, 82-86) azaldu zituzten bere bizitza eta heriotza.



17. Nicolaes van Ravesteyn II (1661-1750)  
*Dama baten erretratu; ziurrenik, Anna de Bye (1636-1713)*  
Olioa mihisean. 65 x 52 cm  
Institut Collectie Nederland, Rijswijk/Amsterdam  
Inb. zenb. 2159

Antzinarotik, tradizio literario, musikal eta piktorikoek legenda bihurtu dute Kleopatraren pertsonaia. Hain zuzen ere, boterearen, ekialdeko exotismoaren, luxuaren eta sentsualtasun erotikoren gorpuzketa da, bai eta askatasunaren sinboloa ere, bere buruaz beste hiltzeko erabakia hartzeagatik. Gai hori behin baino gehiagotan landu dute literaturan eta opera ugaritan. Shakespeareren *Marko Antonio eta Kleopatra* (1606-1607) lana historia horretako birsorkuntzaren eragingarriena da. XVII. mendetik, pintura italiarrean dibanean eserita edo etzanda agertzen da Kleopatra, aspisari eusten dio bular biluziaren gainean eta neska-meak ditu inguruan. Alpeetako iparraldean, legenda horren ezin konta ahala interpretazio daude. Kleopatraren bertsio italiarretan, erdi biluzik agertzen da gortearen aurrean, baina beste irudikapen batzuetan, gortina



irekien atzean eserita azaltzen da, etsipen patetikoa islatzen da bere aurpegian eta neskameak eta lorez edo frutaz betetako saskia baino ez ditu inguruan [16. ir.]<sup>32</sup>.

Herbehereetan, XVII. mendean, emakumeen erretratuak era harrigarrian bilakatu zen: ekialdeko estiloan edo Holandako tradizioaren arabera dotore-dotore jantzitako emakume nobleek oso gustuko zuten artistek euren erretratuak egitea eta zerbitzari beltzen alboan agertzea, Anton van Dyck, Caspar Netscher, Nicolaes van Ravesteyn II [17. ir.] edo Adrien Hannemann mihiseetan ikusten den bezala, besteak beste<sup>33</sup>.

Mignonek margotutako eszena mirestean, ez da erokeria bi tradizioen eragina jaso zuela pentsatzea, hau da, Kleopatraren legendaren irudikapen literario barrokoa eta Holandako emakumeen erretratuen eragin arruntagoa eta garaikideagoa. Nolanahi ere, espekulazioek ez dute amaierarik edukiko, harik eta Mignonek pentsaera kalbinistako arauak zergatik hautsi zituen jakin arte. Beharbada, konpromiso bat atenditzeko egin zuela pentsatzea da arrazonamendu errealista eta gizatiarrena. Antza denez, Mignonek bezero baten guraria bete zuen, Kleopatraren tragedia irudikatzen zuen eszena alegorikoa eduki nahi omen zuen-eta. Hala ere, ikuskera berritik egin zuen. Bere bertsioko Kleopatra ikaratuta dago, emakume xumea eta lotsatua da, ninfen antzera dago jantzita, baina erreginaren apaingarriak daramatza soinean, eta zerbitzari beltzak atenditzen du<sup>34</sup>. Kalbinista izanda, Mignonek ezin izan zuen hobeto egin.

Abraham Mignon artista autodidakta eta aditua izan zen, eta oso ondo egokitzen zen inguruabarretara. Ondo baino hobeto irudikatu zituen bezeroen gurariak, jendaurrean misterioa argitu gabe, *Lore-girlanda* honetan egin zuen bezala. Hori horrela izanik ere, lore-espezie bakoitza, intsektu bakoitza ezin hobeto irudikatuta dago, irudi nagusiaren antzera. Artearen historian zehaztu duten bezala, ez da Floraren pertsonifikazioa, Kleopatrarena baizik, eta Mignonek berak sortutako bertsiok berriak agertzen da. Kleopatra hau, hain zuzen ere, antzinako mitoaren eta garai hartan dama dotoreen artean indarrean zegoen erretratuen tradizio hollandarraren arteko nahastea da. Gaur egun dakiguna kontuan hartuta, Mignonek motibo nagusiaren inguruan egindako girlandaren gaiari buruzko bi bertsiok baino ez daude. Testu honetan aipatu dugun beste lore-girlanda batean, Andre Maria eta Umea agertzen dira, baina badirudi ez zituela berak egin. Beraz, girlanda hori izan ezik, Kleopatraren natura hil zoragarri hau da bere lan guztietan gai hori jorratzen duen margolan bakarra. Mihiseko estiloa eta xehetasunak aztertuz gero, baieztatu egin dezakegu bere lan-ibilbideko epealdi berantiarrekoa izan zela eta 1675. urtearen ingurukoa dela.

32. Kondaira horrek Europako iparraldean izan zuen harreraren adibide moduan, honako hauexek aipatuko ditugu: Johan Lissek (1595-1631) 1622-1624an egindako *Kleopatraren heriotza* (97,5 x 85,5 cm, Alte Pinakothek, Munich, inb. zenb. 13434) eta Johann Georg Platzerren (1704-1761) *Kleopatraren heriotza* (olioa kobreaken gainean, bilduma partikularra, Austria, gordailupean dago Residenzgalerien, Salzburgen, 2008. Azken honek estilo rococoo du eta aipamen erotikoak egiten dira. Caspar Netscherren (1639-1684) *Kleopatraren heriotza* 1673koa da [16. ir.], eta Kleopatraren kondairaren tradizio klasikoak islatzen du.

33. Damen erretratuetan, aberastasuna eta gizarte-maila erakusten dira, eta, horretarako, zerbitzari beltza jartzen diete alboan. Horra hor *Lorenako Endriketa printzesaren erretratu*, Anton van Dycken originalaren arabera, 1634koa (olioa mihisearen gainean, 146 x 112 cm) (RKD, Haga); Caspar Netscherrek 1670. urtearen inguruan sinatutako *Dama dotorearen erretratu* margolana, Sotheby'seko enkante batean agertutakoa (New York) 1998ko urtarrilaren 30ean, 8. lotea; *Endriketa Maria Estuardoren erretratu* (1631-1665), Orange printzea zen Gilen II.aren emaztea zen, eta Adriaen Hannemannek margotu zuen 1660. urtearen inguruan (Mauritshuisen Margolanen Errege Kabinetea, Haga, inb. zenb. 429); Nicolaes van Ravesteyn II.ak seguruenik Anna de Byeri egin zion erretratu (1636-1713) (Rijksdienst Beeldende Kunst, Haga, inb. zenb. C2014) (RKD, Haga); eta Herbehereetako izenik gabeko *Anna Margaretha van Ingendorp à Bloisen erretratu*, 1749koa, Arnhem (RKD). Anton van Dyckek *Lady Venetia Digbyren erretratu alegorikoa* margolan interesgarria egin zuen, eta Windsorko gazteluko Errege Bilduman dago (Knackfuss 1897, 56. eta 63. or., 43. zenb.). Bertan, tunika erromatarraz jantzitako dama agertzen da eserita, eta honako hauexen sinboloak ditu inguruan: xalotasuna (usoa), gaizkia (sugea), ospea (aingeruek edo *puttoek* damaren gainetik eutsitako ereinotz-koroa) eta atzeko aldean etzandako bi aurpegiko munstro kateatua. Elementu alegorikoak laudorioak dira, eta, errege-gortean lanean ari zela, Van Dyckek damagatik sentitutako maitasuna ezkatzen dute.

34. Eskerrik asko Professor Wolfgang Augustyni, Munich, Kleopatraren ikonografiari buruz egindako azterketagatik (Augustyn 1997).

## BIBLIOGRAFIA

### **Castañer 1992-1993**

Xesqui Castañer López. «Algunos ejemplos visualizadores de la vida cotidiana del siglo XVII holandés a través de las pinturas del Museo de Bellas Artes de Bilbao», *KOBIE. Bellas Artes*, Bilbao, 9. zenb., 1992-1993, 181.-189. or.

### **Castañer 1995**

—. *Pinturas y pintores flamencos, holandeses y alemanes en el Museo de Bellas Artes de Bilbao*. Bilbao : Fundación Bilbao Bizkaia Kutxa, 1995.

### **Kraemer-Noble 2007**

Magdalena Kraemer-Noble. *Abraham Mignon, 1640-1679 : catalogue raisonné*. Petersberg : Imhof, 2007.

### **Lasterra 1969**

Crisanto de Lasterra. *Museo de Bellas Artes de Bilbao : catálogo descriptivo : sección de arte antiguo*. Bilbao : Museo de Bellas Artes de Bilbao, 1969.

### **Madril 1989**

*Tesoros del Museo de Bellas Artes de Bilbao : pintura, 1400-1939*. [Erak. kat., Madril, Museo Municipal]. Madrid : El Viso, 1989.

### **Madril/Bilbo/Bartzelona 1992**

*La pintura holandesa del Siglo de Oro : la escuela de Utrecht : fondos del Centraal Museum de Utrecht y de colecciones españolas*. [Erak. kat., Madril, Bilbo, Bartzelona : Banco Bilbao Vizcaya]. Madrid : Banco Bilbao Vizcaya, 1992.

### **Maestros antiguos y modernos... 2001**

*Maestros antiguos y modernos en las colecciones del Museo de Bellas Artes de Bilbao*. Bilbao : Museo de Bellas Artes de Bilbao, 2001 (euskarazko ed., *Antzinako maisuak eta maisu modernoak Bilboko Arte Eder Museoaren bildumetan*; ingelesezko ed., *Ancient and Modern Masters in the Collection of the Bilbao Fine Arts Museum*).

### **Museo de Bellas Artes de Bilbao... 1999**

*Museo de Bellas Artes de Bilbao : maestros antiguos y modernos*. Bilbao : Fundación Bilbao Bizkaia Kutxa, 1999.

### **Museo de Bellas Artes de Bilbao... 2006**

*Museo de Bellas Artes de Bilbao : guía*. Bilbao : Museo de Bellas Artes de Bilbao, 2006 (ingelesezko ed., *Bilbao Fine Arts Museum : Guide*).

### **Padua/Erroma 1991**

*Capolavori dal Museo di Bellas Artes di Bilbao*. [Erak. kat., Padua, Palazzo della Ragione; Erroma, Palazzo delle Esposizioni]. Roma : Leonardo-De Luca Editori, 1991.